

Eta Zergaitik ez Oporrilla?

Badau izenetan il onek, izenetan! Dagenilla, dagonilla, dagonilla, garilla, tistaroa, agorrilla, aguztua... eta leenagoko euskaldunak lurrari lotuegi bizi be eta atsedean ordu luzerik artzeko aukerarik ez ebelako, bestelan danen gainetik eta danetatik urgarien zabaldua oporrilla izango eban. Gaur izenik asmatzekotan orixe aukeratuko neuskio nik neuk beintzat. Izenak aroaz batera joan bear badabe, zein obegoarik eta egokiagorik beretzat?

Izenak izen, gaurko munduaz ill onek daukan loturarik beteena, dakarren uztarik gozoena, oporrera izaten da. Lan-tegirik geienak be ortxe artzen ditue euren atsedean aldiak. Eta oporretan ordoaz erarik eta aukerarik daben geientxoena, danak ez baina, nonbaiteko norabaitera, eguzkia artzera edo mendian ibiltzera, kerizpetan edo ondartzan etzunda egotera, errialde barriak ikusi eta kalez kale eta eleiaz eleiza ibiltera, eta zelan ez ba, mordo galantak euren jatorrizko errietara, «beti eguzkia daukagun geure ango errira».

Batzuk urtea zear egiten ez dituen gauzak praktikatzan jardungo dabe. Kale bizitzan besteak be ez doazela eleizara eta eleizkizunei urte guztian agur esanik bizi diranak be, euren errietan barriro eleizaratzen dira; aitzea gatxago egiten jatan arren, bestera egiten dabena be ba ei dagoz: emen eleiztar eta eurenear, ostera, eleiz loturei be oporrrak emon. Nonbaiten irakurritako datuak ditut eurok.

Oporrrak atsedean aldirako egunak izaten dira, or ez dago zalantzarik. Urte guztian buru-belarri eta itoka ibili gairean giro larritik urten apur bat bada be

eta aurrera jarraitzeko indar barriak artzea egoki etortzen da. Edozeinek ulertzen dau ori. Baina oporrrak opor, oporraldia ez da gorputzerako baraualdia izaten. Nori bururatuko jako ba oporretara doala eta elikatze arazoari be oporrrak emon bear deutzazanik. Puntu orretan zentzunez jokatzan dogu, beno, zentzunez edo...

Beste arazo batzuk larriago ibili oi dira. Euren betiko jaioterrira ez doazena, benetako turista lez ango edo emengo kanpinetan sartu eta egunak or eta egunak an igarotera doazanak, makutoa bizkarrean artu, atzamar lodiaz norantz joan gura daben adierazo eta bidebatezko aingeruekin ondo ibili eta pasadizuan errietako kultura eta artearen billa doazanak, ez eziña dabelako, baina ziurrago egingo dabe aguztuko denporea arimazkoetarako be oporrill. Txarto pentsetan diardudala?

Adibide bat emongo deusuet. Beti be bai, baina uda denporetan sartu zaite aintxiñako arlanduz eta arte lanez betirik dagoan eleiza edo katedrale batera. Jentea borborka dabil batera eta bestera, oni begiratu eta orri begiratu, argazkiak ateratzen be bardin. Bearbada mezea emoten dago abadea eta jente talde txoa parte artu gurarik. Kristinauen errezo zarateak baina zarata aundiagoa egiten dabe begiraleen jardunak.

Arima gauzetan ez dagoala oporrik, udaldian be fedea landu egin bear dala esaten da, baina... Ai oporrilla, oporrilla! Zintzoago jokatuko ete dogu aurtent?